



HEZKUNTZA SAILA

Ebazpena, 2018ko martxoaren 12koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako Goi-mailako Heziketa-zikloetan sartzeko probak arautzeko eta 2018-2019 ikasturterako probetara deitzeko dena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 52.2. artikuluan xedatzen denez, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako zikloetan sartzeko beharrezkoa da Batxilergoko titulua edo baliokidetzat jotzen den beste titulu bat izatea eta, gainera, berariazko sarrera-proba bat egitea, egiaztatze ikasleak badituela kasuan kasuko ikasketak probetxuz egiteko beharrezko gaitasunak. Dena den, nahiz eta titulu horiek ez izan, baldin eta adinarekin loturiko baldintza batzuk betetzen badituzte, ikasleek aukera dute ikasketa horiek egiteko, betiere, sarrera-proba gainditzen badute.

Bestalde, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketen antolamendu orokorra ezartzen duenak, V. kapituluan, horrelako ikasketak egiteko eskakizunez gain, honakoak ere ezartzen ditu: berariazko proba egiteko salbuespenak, eskakizun akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probak, proben arauketa eta baliozkotasuna, eta tokiak erreserbatzeko sistema.

Azkenik, 2/2006 Lege Organikoko 52.5. artikulua eta 596/2007 Errege Dekretuko 15.4. eta 17.1. artikuluek Hezkuntza Sailari egokitzen diote horrelako probak arautzeko eskumena. Horregatik, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko prozesua arautzea da ebazpen honen xedea, baita Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako zikloetan sartzeko urteroko proba egiteko deialdi ohikoa egitea ere.

Bigarrena. Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko eskakizunak.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako zikloetan sartzeko, beharrezkoa da Batxilergoko titulua edo baliokidetzat jotzen den titulu bat izatea.



Era berean, eskakizun akademiko horiek betetzeaz gain, beharrezkoa da berariazko proba bat gainditzea, egiaztatzeko ikasleak badituela kasuan kasuko ikasketak probetxuz egiteko beharrezko gaitasun eta ezaupide artistikoak.

Hirugarrena. Ikasleek proba egiteko bete beharreko eskakizun akademikoak.

Honako eskakizun hauetako bat betetzen duten ikasleek egin dezakete Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloak egiteko berariazko sarrera-proba:

1. Batxilergoko titulua edo titulu baliokide bat izatea.
2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua izatea.
3. Arte Aplikatueta eta Lanbide Artistikoetako graduatu-titulua izatea, 1963ko ikasketa-planaren edo plan esperimentalaren arabera.
4. Lanbide Heziketako teknikari espezialistaren titulua edo Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari-titulua izatea.
5. Unibertsitateko titulu bat edo baliokide bat izatea.
6. Ondorio akademikoetarako aipatutako ikasketen baliokidetzat jotzen diren ikasketak gainditu izana.
7. Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana.
8. Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionalak egiteko eskakizun akademikoak egiaztatzearen ordezkoko heldutasun-proba gainditu izana.
9. Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloak egiteko sarrera-probaren zati komuna gainditu izana.

Laugarrena. Berariazko proba egiteko salbuespenak.

1. Honako tituluetakoren bat dutenek ez dute berariazko proba egin beharrik Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketetako goi-mailako zikloetan sartzeko:
 - a) Kasuan kasuko ikasketekin loturiko lanbide-arlo baten barruan Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua edo baliokidetzat jotzen den bat.
 - b) Arte Batxilergoko titulua edo Arte Batxilergo Esperimentaleko titulua.
 - c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako titulua, edozein espezialitatetan, edo baliokidetzat jotzen den bat.
 - d) Kultura Ondasunen Zaintza eta Zaharberrikuntzako goi-mailako titulua, edozein espezialitatetan.



- e) Arteko gradua, Arte Ederretako lizentziatu titulua edo baliokide bat.
- f) Arkitekturako gradua, Arkitekturako titulua edo baliokide bat.
- g) Industria Diseinuko Ingeniaritzako gradua, Industri Diseinuko Ingeniaritza Teknikoko titulua edo baliokide bat.

2. Hezkuntza Sailak salbuetsi egin ditzake honako bi baldintzak betetzen dituzten ikasleak: batetik, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, 52.1. eta 52.2. artikuluetan ezartzen dituen eskakizun akademikoak betetzea eta, bestetik, gutxienez urtebeteko lan-esperientzia egiaztatzea kasuan kasuko goi-mailako heziketa-zikloko gaitasun profesionalekin zuzeneko lotura duen lan batean. Horretarako, ikasleek honako dokumentuak aurkeztuko dituzte gutxienez:

- a) Ikasleak zer enpresatan lortu duen lan-esperientzia, haren ziurtagiri bat, datu hauek berariaz ematen dituena: kontratuaren iraupena, egindako lana eta dena delako lana egiten emandako denbora.
- b) Beren kontura jardun duten langileek, zergapekoen erroldan alta hartu duten ziurtagiria.
- c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta/edo ikaslearen lan-mutualitatearen egiaztatagiri bat, enpresa eta kontratazio-aldia adierazten dituena.

Proban izena emateko eskabidean bertan eskatuko da salbuespena, eta eskaera justifikatzeko dokumentuak aurkeztuko dira eskabidearekin batera.

Bosgarrena. 2018 urterako sarrera-proba egiteko izen-ematea: prezio publikoak, lekua eta epeak.

1. Proba egin behar duten ikasleek bakarrik emango dute izena Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko proban, baita lan-esperientzia dela-eta salbuespena eskatzen dutenek ere.

2. Proban izena emateko, eskabide bat aurkeztuko dute interesdunek, sinatuta, ebazpen honen I. eranskineko ereduari jarraikiz. Era berean, nortasun-agiria eta bankuan dagoen tasa ordaindu duten frogagiria aurkeztuko dute, ebazpen honen arabera kasuan-kasuan dagozkion dokumentuekin batera.

3. Vitoria-Gasteizko EASD I.D arte AGDEn emango da izena. Eskolak berak jakinaraziko die interesdunei, bere webgunean (info@idearte.eus), nola gauzatu izen-ematea.

4. Izena emateko epea

izen emateko epea 2018ko maiatzaren 21etik ekainaren 8ra bitartekoa izango da, bi egun horiek barne.



5. Proba egiteko eguna eta lekua

Eguna: 2018ko ekainaren 15ean, 09:00etan.

Lekua: EASD I.D arte ADGE, Aguraingo Taldearen kalea z. g. Vitoria- Gasteiz

6. 2016ko maiatzaren 16koa Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoa xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten ikasleek 28,02 euro ordainduko dute ADGEren web orrian jarriko den aplikazioaren bitartez. Ordainagirian, izena eta bi abizen adieraziko dituzte, eta "Sarrera-proba" azalpena zehaztuko dute.

7. Urte bereko ohiko deialdian bakarrik, Hezkuntzako sailburuordearen 2017ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako heldutasun-probetan parte hartzen dutenek ez dute izango prezio publikorik ordaindu beharrik, baina, horretarako, heldutasun-proban parte hartu dutela egiaztatuko dute, dagozkion dokumentuak aurkeztuta

8. Proba euskaraz edo gazteleraz egin ahalko da. Ikasleek izena emateko eskabidean adieraziko dute zer hizkuntzatan egin nahi duten.

9. Proba egiteko, nortasun-agiri bat aurkeztuko dute ikasleek (NAN, pasaporte, egoitza-baimena...), eta beharrezko material guztia eramango dute.

10. Bere webgunean, proba egiteko egutegia eta probaren behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitaratuko ditu Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolak, baita probari buruzko beste edozein datu esanguratsu ere.

11. Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoarekin bat, eskabidea betetzeak berekin dakar interesdunak baimena ematea bertan adierazitako datuak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko fitxategi informatizatuetan gordetzeko. Lege berarekin bat, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzake interesdunak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren aurrean.

Seigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izateko. Eskabideak dakarren tartea ez bada nahikoa beharrezko egokitzapena adierazteko, orri atxiki batean azalduko dute.

Zazpigarrena. Sarrera-probaren egitura.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba espezifikoa lau fasetan banatutako ariketa bat izango da.



1. fasea: gai bat proposatzea (denbora: 15 min.)

Gai bat emango da, eta horren inguruan prestatutako gutxienez bi lan grafiko eta gehienez sei aurkeztu beharko dira azken arte gisa.

Gai edo testu iradokitzaile bat emango da: hitz bat, esaldi bat, nanokontakizun bat edo testu luzexeago bat.

Nahi den teknika aukeratu ahal izango da; ondorengo puntuan deskribatzen da.

2. fasea: lan-garaia (denbora: 2 ordu)

Denbora honetan, bozetoak eta/edo argazki-rallyko argazkiak egingo dira.

Teknika aukera librekoa izango da, betiere kategoria hauen barruan:

Eskuzko teknika: marrazkia teknika lehor edo hezeekin eta/edo collage-a.

Teknika digitala: irudi eta/edo collage digitala

Argazki-rallya: 2 orduz inguruko argazkiak egitea

Hautagaiek material hau eraman beharko dute, erabiliko duten teknikaren arabera:

- Eskuzko teknika: teknika lehor eta hezeetarako materialak, guraizeak, barra-kola eta kuterra.
- Teknika digitala: marrazteko gailuak eta softwarea.
- Argazki-rallya: argazkiak ateratzen dituen gailu bat (argazki-kamera, mugikorra, tableta...), ordenagailu eramangarri bat gero argazkiak ikusteko eta/edo editatzeko eta behar diren konexio-kable guztiak.

Emango den material bakarra:

- Papera.
- Collage-a egiteko material grafikoa

3. fasea: entregatu beharreko materiala aukeratzea eta akabera

Azken proposamenak aukeratu eta landuko dira; gutxienez bat, irudi konplexu eta landuen kasuan, adibidez, eta, gehienez sei, argazki-serie bat aurkezten den kasuan, esate baterako (halako kasuetan, gutxienez bi entregatu beharko dira).

Euskarri hauetan entregatu beharko dira:

- Eskuzko teknikak: emandako formatuko paperean
- Teknika digitalak: irudi digitalak PDFn; argazki-rally-a JPEGn.
- Bozetoak ere entregatuko dira, dokumentazio gehigarri gisa

Ebaluazio-irizpideak:

- Narratzeko gaitasuna – storytelling-a (3 puntu)
- Sormena eta autonomia (3 puntu)
- Egikera eta akabera (puntu bat)

4. fasea: deskribapen- eta justifikazio-testua



Proposamenaren aukeraketa, garapena eta justifikazioa deskribatuko eta argudiatuko da 10 lerrotan.

Ebaluazio-irizpideak:

- Maila narratibo-deskribatzailea (puntu bat)
- Argudiatzeko gaitasuna (puntu bat)
- Laburtzeko gaitasuna (puntu bat)

3. eta 4. faseetarako, guztira 2 orduko denbora egongo da. Fase horiek derrigor gauzatu beharko dira. Hautagairen batek bi fase horietakoren bat egiten ez badu, bere proba ez da zuzenduko.

Zortzigarrena. Sarrera-probaren ebaluazioa.

1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du epaimahaia, eta epaimahaiburuak eta lau epaimahaikidek osatuko dute. Lau epaimahaikideak irakasleak izango dira, eta bi Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak izan ahalko dira.

2. Epaimahaikide izateko, proba osatzen duten ariketekin loturiko espezialitateetan gaitasun profesionala duten irakasleak proposatu ahalko ditu Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak.

3. Epaimahaiak laguntza eskatu ahalko die egoki deritzen aholkulariei.

4. Honakoak izango dira epaimahaiaren egitekoak:

a) Probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea. Probak bakarrak izango dira Euskal Autonomia Erkidego osoan.

b) Lan-esperientzia dela-eta aurkezten diren salbuespen-eskaerak aztertzea eta, aurkezten diren dokumentuetan oinarrituz, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari salbuespen bakoitzari buruzko iritzia ematea, hark ebatz dezan. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebazpenaren berri emango dio epaimahaiari.

c) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.

d) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.

e) Sarrera-probak behar bezala egiten direla eta indarrean dagoen legedia betetzen dela zaintzea.

5. Honakoak ebaluatuko ditu epaimahaiak: ideiak zehazteko eta egokiro azaltzeko gaitasuna, irudikatze eta komunikatzeko gaitasuna, eta sen artistikoa eta sentsibilitatea.



Bederatzigarrena. 2018 urterako sarrera-probetako emaitzen argitalpena eta erreklamazioak.

1. Behin-behineko kalifikazioak EASD I.D arte AGDEko webgunean argitaratuko dira ekainaren 22an..
2. Ikasleek erreklamazioa aurkez dezakete kalifikazioaren kontra, behin-behineko emaitzak argitaratu eta 48 orduan, epaimahaiburuaren aurrean, EASD I.D arte AGDEko Idazkaritzak banatuko duen ereduaren arabera. Behin betiko kalifikazioak onartuta ebatziko dira erreklamazioak.
3. Behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta astebetean argitaratuko ekainaren 27an EASD I.D arte AGDEren webgunean.
4. Ikasleek gora jotzeko errekurtoa aurkez dezakete behin betiko kalifikazioen kontra, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako arduradunaren aurrean, kalifikazioak argitaratu eta hilabetean.

Hamargarrena. Sarrera-probaren baliozkotasuna.

1. Sarrera-proba gainditzeak Estatu osoan izango du balioa, eta, indarrean dagoen legediarekin bat, kasuan kasuko heziketa-zikloan matrikulatzeko eskubidea emango du, betiere, ikastegietan tokirik badago.
2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketak egiteko eskubidea bakarrik emango du Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloetan sartzeko proba gainditzeak, eta ez da izango inolako titulu akademikorik lortzearen baliokidea, ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arloren bat edo Batxilergoko ikasgairen bat gainditzearena.

Hamaikagarrena. Probaren ziurtagiria.

Proba gainditzen duten ikasleek ziurtagiria eskatu ahaliko dute, Vitoria-Gasteizko EASD I.D arte AGDEn.

Hamabigarrena. Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastegietan sartzeko eskaera.

1. Ohiko deialdiaren barruan izena emateko epe bat ezarriko dute Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketa profesionaletako goi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastegiei, eta beste bat ezohiko deialdiaren barruan izena emateko.
2. Zer ikastegitan egin nahi dituzten ikasleek ikasketak, han aurkeztuko dute eskabidea.
3. Eskabidean, berariaz, ikasleek adieraziko dute ea zuzenean sartzen diren, salbuespen bidez, edo berariazko sarrera-proba egin behar duten. Sarrera-probatik salbuespen dauden ikasleek salbuespena justifikatzeko dokumentuak aurkeztuko dituzte, eta ikastegi bakoitzeko idazkaritzak gordeko ditu dokumentuok, Hezkuntza Ikuskaritzak egoki deritzon aztertze eta ebaluatze.



Hamahirugarrena. Ikastetxe publikoetako tokien esleipena.

1. Ohiko deialdiaren barruan Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloetan izena emateko epea amaitutakoan, ikastegi publikoek toki libreak esleituko dituzte, erreserbatzeko diren tokien ehuneko hauek kontuan hartuta:

a) Proba egin behar ez dutela-eta zuzenean sartzten diren ikasleentzat tokien % 60 erreserbatuko dute.

b) Proba egin behar duten ikasleentzat tokien % 30 erreserbatuko dute.

c) Pertsona Desgaituen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa betez, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasun maila duten ikasleentzat tokien % 5 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion sartzeko eskakizunak betetzen badituzte. Horretarako, ezgaitasuna duten ikasleek zer ezgaitasun-maila aitortuta duten adierazten duen ziurtagiria erakutsi behar dute, eskumena duen organoak egina.

Eskaera erreserbatutako tokien kopurua baino handiagoa bada, ikasleen lehentasun-ordena egiteko zerrenda bakarra egingo da, berariazko sarrera-probako kalifikazioa edo, salbuetsita dagoela-eta zuzenean sartzten bada, aurkeztu den tituluaren batezbesteko nota kontuan hartuz.

d) Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako eta erremindu handiko kirolariei buruzkoak, 9.4. artikuluan xedatzen duenarekin bat, horrelako kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat tokien % 5 erreserbatuko dute, betiere, dagozkion eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta berariazko proba gainditzen badute.

Eskaera erreserbatutako tokien kopurua baino handiagoa bada, ikasleen lehentasun-ordena egiteko zerrenda bakarra egingo da, berariazko sarrera-probako kalifikazioa edo, salbuetsita dagoela-eta zuzenean sartzten bada, aurkeztu den tituluaren batezbesteko nota kontuan hartuz.

2.- c) eta d) ataletan zehazten diren erreserba-kupoetan bete gabeko tokiak b) ataleko erreserba-kupora gehituko dira. Halaber, b) atalean zehazten den erreserba-kupoan bete gabeko tokiak a) ataleko erreserba-kupora gehituko dira, eta alderantziz.

3. Honakoa izango da ikasleen lehentasun-ordena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko moduaren arabera:

a) Salbuetsita daudela-eta zuzenean sartzten diren ikasleak

Elkartu eta antolatu egingo dituzte ikastegi publikoek, ebazpen honetako 4. artikuluko salbuespen moten arabera. Ikasleen kopurua handiagoa bada tokiena baino, honako irizpideak hartuko dira kontuan lehentasun-ordena finkatzeko:

1. Kasuan kasuko ikasketekin loturiko lanbide-arlo baten barruan Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari-titulua edo Arte Batxilergoko titulua edo Arte



Batxilergo Esperimentaleko titulua duten ikasleak. Alegatzen duten tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako titulua edo Kultura Ondasunen Zaintza eta Zaharberrikuntzako goi-mailako titulua duten ikasleak. Alegatzen duten tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

3. Urtebeteko lan-esperientzia edo Unibertsitateko gradu bat edo baliokidetzat jotzen den titulu bat duten ikasleak. Lehentasuna izango dute salbuetsita dauden ikasleak lan- esperientzia onartu zaielako. Alegatzen duten tituluaren batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

b) Berariazko probaren bidez sartzen diren ikasleak

Azken bi urteetan berariazko sarrera-proban lortzen duten kalifikazioaren arabera ordenatuko dituzte ikastegi publikoek.

4. Toki hutsik gelditzen bada artikuluko honetako 1. eta 2. paragrafoetan azaldutako banaketa egin ondoren, lehentasun-ordena honi jarraituz esleituko da:

1. Sarrera-proba aurreko deialdiren batean Euskal Autonomia Erkidegoan gainditu duten ikasleak.
2. Sarrera-proba deialdi berean beste autonomia-erkidego batean gainditu duten ikasleak.
3. Sarrera-proba aurreko deialdiren batean beste autonomia-erkidego batean gainditu duten ikasleak.

Hamalagarrena. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak baimena du ebazpen honek xedatzen duena garatzeko beharrezko arauak emateko.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 12ean.

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

Lucía Torrealdy Berrueco